

UPV/EHUko IKASLE KONTSEILUAK BAT EGIN DU UPV/EHUren BIDEZKO FINANTZAKETAREN ALDARRIKAPENAREKIN, ETA EUSKO JAURLARITZAREN ETA ERREKTORETZAREN ARTEKO NEGOZIAZIOA ESKATU DU

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Donostian, 2025eko irailaren 10ean – EHUren ikasturteari hasiera emateko ekitaldiaren egun berean, Ikasle Kontseiluak euskal unibertsitate publikoak pairatzen duen finantzaketaren egoeraren larritasuna azpimarratu nahi du. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak gaur egun egiten duen ekarpena oso urrun dago USLOk gutxieneko erreferentzia gisa ezartzen duen BPGaren % 1etik.

Egoera honek ondorio zuzenak ditu ikaslearentzat:

- Hondatutako instalazioak eta oinarritzko ikaskuntza-espazioetan inbertsio eza.
- Irakasleen prekarizazioaren eta baliabide eskasen ondorioz irakaskuntzaren kalitatearen okertzea, plangintza akademiko eskas batera eramaten duena.
- Unibertsitatean sartzeko eta bertan jarraitzeko berdintasuna bermatzeko giltzarri diren funtsezko zerbitzuen ahultzea.

Egoera honen aurrean, EHUren finantzaketa nahikoa eta egonkorra bermatzea buru duen plan bat negoziatzeko eser daitezen eskatzen diegu Eusko Jaurlaritzari zein Errektoretzari, urgentziaz eta gardentasunez ospatu behar dena. Errektoretzak ezin du egungo egoera onartu besterik egin; irmotasunez defendatu behar ditu unibertsitate publikoaren, ikasleen eta gainerako unibertsitate-komunitatearen interesak.

Ikasle Kontseiluak sindikatuen aldarrikapenarekin bat egiten du eta EHUren etorkizunarekiko benetako konpromiso politikoa eskatzen du.

**UPV/EHUko Ikasle Kontseilua
Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU**



Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua